Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2054

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 22koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena; honen bitartez, Laboratorios Butec SL enpresa aldi baterako izendatzen da konpresio bidez (diesel) martxan jartzen den motorra duten ibilgailuen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko tresnen metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakunde gisa.

Erref.: LAB-03-OPA.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2006ko otsailaren 17an, Laboratorios Butec SL enpresari (helbidea: Condado de Treviño kalea, 65. B zenbakia, Villalonquéjar industrialdea, Burgos,) baimena eman zitzaion 1998ko apirilaren 15eko Aginduaren IV. eta V. kapituluetan aurreikusitako konponketa edo aldaketa ondorengo egiaztatze-entseguak eta aldizkako egiaztatze-entseguak egiteko. Aipatutako agindu haren bidez arautu egiten da konpresio bidez (diesel) martxan jartzen den motorra duten ibilgailuen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko tresnen gainean Estatuak eramaten duen metrologia-kontrola.

Bigarrena.– 2010eko otsailaren 10ean, Susana Rodríguez Alonso andreak (Laboratorios Butec SL enpresaren izenean eta ordezkari gisa) Zuzendaritza honetan aurkeztu zuen azaroaren 22ko ITC/3749/2006 Aginduan aurreikusitako konponketa edo aldaketa ondorengo egiaztatze-entseguak eta aldizkako egiaztatze-entseguak egiteko baimena luzatzeko eskaera. Aipatutako agindu haren bidez arautu egiten da konpresio bidez (diesel) martxan jartzen den motorra duten ibilgailuen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko zerbitzu-fasean dauden tresnen gainean Estatuak eramaten duen metrologia-kontrola.

Hirugarrena.– Metrologia-egiaztapenak egiteko erakunde baimendu gisa izendatua izateko, azaroaren 26ko 1/2007 Jarraibidean ezarritako baldintzak bete beharko ditu erakunde eskatzaileak. Horretarako, Egiaztapeneko Erakunde Nazionalaren egiaztagiriari dagokion auditoretza-txostena aurkeztu da (azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentarauko 4. artikuluaren 1. puntua), eta OC-I/1731-15465 espedienteari jarraiki dokumentu hori izapidetzealdian dago.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2054

RESOLUCIÓN de 22 de febrero de 2010, de la Directora de Administración y Seguridad Industrial, por la que se designa provisionalmente a Laboratorios Butec, S.L. como organismo de verificación metrológica de instrumentos destinados a medir la opacidad y determinar el coeficiente de absorción luminosa de los gases de escape de los vehículos equipados con motores de encendido por compresión (diesel).

Ref.: LAB-03-OPA.

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Con fecha 17 de febrero de 2006, la empresa Laboratorios Butec, S.L., con domicilio en Burgos, Polígono Industrial de Villalonquéjar, calle Condado de Treviño n.º 65 B, fue autorizada para realizar los ensayos de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica previstos en los capítulos IV y V de la Orden de 15 de abril de 1998 por la que se regula el control metrológico del Estado sobre los instrumentos destinados a medir la opacidad y determinar el coeficiente de absorción luminosa de los gases de escape de los vehículos equipados con motores de encendido por compresión (diesel).

Segundo.– Con fecha 10 de febrero de 2010, D.ª Susana Rodríguez Alonso, en nombre y representación de la empresa Laboratorios Butec, S.L., ha presentado en esta Dirección solicitud de prórroga de autorización para realizar los ensayos de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica prevista en la Orden ITC/3749/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado en la fase de instrumentos en servicio destinados a medir la opacidad y determinar el coeficiente de absorción luminosa de los gases de escape de los vehículos equipados con motores de encendido por compresión (diesel).

Tercero.– Para la designación como organismo autorizado de verificación metrológica, la entidad solicitante deberá cumplir con los requisitos establecidos por la Directriz 1/2007, de 26 de noviembre, para la designación de organismos autorizados de verificación metrológica. A tal efecto, se ha presentado informe de auditoría correspondiente a la acreditación del ENAC (punto 1 del artículo 4 de la Directiva 1/2007, de 26 de noviembre), documento en tramitación, según expediente OC-I/1731-15465.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, beharrezkoa izango da jarraian esaten direnak kontuan hartzea,

OINARRI JURIDIKOAK

1.– EAEn metrologia-kontrola burutzeko bitartekoak ezartzen dituen 38/2001 Dekretuaren 11. artikuluan zehazten da industriaren alorreko erakunde eskudunak metrologia-egiaztapenerako erakundeak gaitu ditzakeela konponketa edo aldaketa ondorengo egiaztatze-entseguak eta aldizkako egiaztatze-entseguak egiteko.

2.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren 14. artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta (2009-09-24ko EHAA), Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza da ebazpen hau hartzeko organo eskuduna.

3.– Neurgailuen metrologia-kontrola arautzen duen oinarrizko legedia honako hauek osatzen dute: Metrologiari buruzko 3/1985 Legea (ekainaren 28ko 1296/1986 Legegintzako Errege Dekretuak aldatu zuen), abenduaren 30eko 13/1996 Legea, abenduaren 30eko 66/1997 Legea, uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretua (Neurketa-tresnei dagokienez Estatuko kontrol metrologikoa arautzen du) eta aipaturiko azaroaren 26ko 1/2007 Jarraibidea.

4.– Azaroaren 22ko ITC/3749/2006 Aginduaren IV. eranskinean zehazten dira entseguak, entseguak gauzatzeko modua eta baimendutako gehienezko akatsak. Aipatutako agindu haren bidez arautu egiten da konpresio bidez (diesel) martxan jartzen den motorra duten automobilen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko zerbitzu-fasean dauden tresnen gainean Estatuak eramaten duen metrologia-kontrola.

Aurreko legezko arauak eta ezarri beharreko gainerako xedapen orokorrak ikusita, eta Industria Zerbitzuko buruak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Laboratorios Butec SL enpresa aldi baterako izendatzea azaroaren 22ko ITC/3749/2006 Aginduaren II. eranskinean ezarritako konponketa edo aldaketa ondorengo egiaztatze-entseguak eta aldizkako egiaztatze-entseguak egiteko. Aipatutako agindu haren bidez arautu egiten da konpresio bidez (diesel) martxan jartzen den motorra duten ibilgailuen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko zerbitzu-fasean dauden tresnen gainean Estatuak eramaten duen metrologia-kontrola.

Para la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

1.– El artículo 11 del Decreto 38/2001, por el que se establecen los medios para la ejecución del control metrológico en la CAPV, especifica que el órgano competente en materia de industria podrá habilitar a entidades de verificación metrológica para el desempeño de las funciones de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica.

2.– La Dirección de Administración y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución en virtud de los establecido en el artículo 14 del Decreto 514/2009, de 22 de septiembre (BOPV de 24-09-2009), por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

3.– La legislación básica reguladora del control metrológico de los instrumentos de medida está constituida por la Ley 3/1985, de Metrología, modificada por Real Decreto Legislativo 1296/1986, de 28 de junio, Ley 13/1996, de 30 de diciembre, y Ley 66/1997, de 30 de diciembre, el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, por el que se regula el control metrológico del Estado sobre instrumentos de medida y la Directriz 1/2007, de 26 de noviembre.

4.– La Orden ITC/3749/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado en la fase de instrumentos en servicio sobre los instrumentos destinados a medir la opacidad y determinar el coeficiente de absorción luminosa de los gases de escape de los vehículos equipados con motores de encendido por compresión (diesel), especifica en el anexo IV los ensayos, su ejecución y los errores máximos permitidos.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación, y a propuesta del Jefe de Servicio de Industria,

RESUELVO:

1.– Designar provisionalmente a Laboratorios Butec, S.L. para la ejecución de los ensayos de verificación después de reparación o modificación y verificación periódica, establecidos en el anexo II de la Orden ITC/3749/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado en la fase de instrumentos en servicio sobre los instrumentos destinados a medir la opacidad y determinar el coeficiente de absorción luminosa de los gases de escape de los vehículos equipados con motores de encendido por compresión (diesel).

2.– Emandako izendapenari honako baldintza hauek jartzea:

– Jarduteko eremuak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden tresnak biltzen ditu.

– Tresnak entseguak gainditzen baditu, egiaztapena bete duela adierazten duen etiketa jarriko dio erakundeak. Tresnak ez baditu entseguak gainditzen, «zerbitzuz kanpo dagoen tresna» inskripzioa duen etiketa gorria jarriko dio erakundeak.

– Dagokion egiaztapena gauzatu ondoren, Laboratorios Butec SL enpresak zigiluen bidez zigilatuko du tresna edo, ahal denean eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsasgarri autosuntsigarrien bidez zigilatuko du.

Kasu guztietan, zigiluek honako inskripzio hauek izango dituzte:

2.– Imponer las siguientes condiciones a la designación que se concede:

– El ámbito de actuación comprende los instrumentos existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Cuando el instrumento supere los ensayos, la entidad le adherirá la etiqueta de verificación cumplimentada. Caso de no superación, le adherirá la etiqueta roja con la inscripción de «Instrumento fuera de servicio».

– Efectuada la verificación de que se trate, Laboratorios Butec, S.L. precintará el instrumento mediante precintos o, si ello es posible y se garantiza la inviolabilidad, mediante etiquetas adhesivas autodestructibles.

En todos los casos los precintos llevarán las siguientes inscripciones:

Plaztikozko zigilua

Aurrealdea



Atzealdea



Precinto de plástico

Anverso



Reverso



XX zigilua egiaztapena egin deneko urtearen bi azken digituei dagokie.

3.– Laboratorios Butec SL enpresak baimendutako entseguei dagozkien tarifen berri urtero emango dio zuzendaritza honi.

4.– EAEn baimenduta dauden erakundeen erregistroari dagokionez, Laboratorios Butec SL enpresari 01-OV-1003 zenbakia esleitu zaio.

5.– Laboratorios Butec SL erakundeak une oro honako hauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu: neurketa-tresnei dagokienez Estatuko kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuan, azaroaren 22ko ITC/3749/2006 Aginduan, Industria Idazkaritza Nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzak ezarri dezakeen beste edozein xedapenetan.

6.– Izendapen hori 2010eko ekainaren 30ean iraungiko da eta interesdunak beste izendapen bat eska dezake data hori heldu aurretik, betiere Industria Idazkaritza Nagusiaren 2007-11-29ko Ebazpenean ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu. Aipatutako ebazpen horretan argitaratuta dago azaroaren 26ko 1/2007 Jarraibidea, metrologia-egiaztapenerako baimendutako erakundeak izendatzen dituena.

7.– Izendatutako erakundearen jarduerak ikuskatzeko, horietan esku-hartzeko eta kontrolatzeko eskumena Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari dagokio, baita Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritzei ere. Gainera, erakunde horiek ikuskapenak egin ahal izango dituzte baimena eragin zuten baldintzei eusten zaiela egiaztatzeko.

8.– Ebazpen honen ostean aurkeztutako dokumentuetan aurretik egiaztatutako inguruabarretan edozein aldaketa gertatzen bada, Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio eta erakunde horrek erabakiko du baimena berrestea edo baliogabetzea.

9.– Indarrean dagoen legedian aurreikusitako arrazoiez gain, honako arrazoi hauek ere badakarte dagokion baimena baliogabetzea: baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea eta baimena eman zeneko inguruabarrak asko aldatzea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beraren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabete bateko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Proze-

XX corresponde a los dos dígitos finales del año en que se realiza la verificación.

3.– Laboratorios Butec, S.L. comunicará anualmente a esta Dirección las tarifas que establezca para los ensayos que se autorizan.

4.– A efectos del registro de organismos autorizados de la CAPV, se asigna el n.º 01-OV-1003 a Laboratorios Butec, S.L.

5.– La entidad Laboratorios Butec, S.L. estará sometida en todo momento con lo que disponen el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, por el que se regula el control metrológico del Estado sobre los instrumentos de medida, Orden ITC/3749/2006, de 22 de noviembre y la Resolución de 29 de noviembre de 2007, de la Secretaría General de Industria, así como también cualquier otra disposición que establezca la Dirección de Administración y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

6.– Esta designación caducará el 30 de junio de 2010, pudiendo el interesado solicitar una nueva con anterioridad a dicha fecha, cumpliendo con todos los requisitos establecidos en la Resolución de 29-11-2007, de la Secretaría General de Industria, por la que se publica la Directriz 1/2007, de 26 de noviembre, para la designación de organismos autorizados de verificación metrológica.

7.– La competencia para efectuar la inspección, intervención y control de las actuaciones realizadas por el organismo designado corresponde a la Dirección de Administración y Seguridad Industrial, así como a las Delegaciones Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. Además, podrán realizar inspecciones para comprobar el mantenimiento de los requisitos que dieron origen a esta autorización.

8.– Cualquier modificación o cambio en las circunstancias acreditadas en los documentos presentados sobrevenidos con posterioridad a la presente Resolución deberán ser notificados a la Dirección de Administración y Seguridad Industrial, que ratificará la autorización o podrá cancelarla en su caso.

9.– Son causas de cancelación de la presente autorización, además de los previstos en la legislación vigente, el incumplimiento de las prescripciones establecidas en la misma, así como la variación sustancial de las circunstancias en que ha sido otorgada.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación

dura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 22a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.

de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2010.

La Directora de Administración y Seguridad Industrial,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.